



PANTAILA TXIKIAN

Guraso (in)perfektuak

Gaizka Izagirre Brosa

“M ama* eme* ume*” liburuan, esaterako, hamahiru lekukotza jaso dituzte, hamaika emakumezkorenak, profil ezberdinetakoak: erditu direnak eta ez direnak, ama ez izatea aukeratu dutenak, ama bakar-rak, banatu diren amak, adopzio bidezkoak, amamak, migratzaileak, ama lesbiana-k... Eta gainerakoak bi aitar-en testigantzak dira. Askota-riko esperientziak kontatzen dituzte protagonistek: amata-suna eta gaixotasuna, indar-keria matxista, indarkeria obs-tetrikoa, migrazioa eta seme-alabengandik urrun bizi beharra, osasun mentaleko arazoak, galdutako umeak eta doluak...

Gomendioen zerrenda hau osatzeko eta lehen aipaturiko hausnarketa hori behar bezala elikatzeke, gai horiek zeharka edo zuzenean jorratzen dituz-ten ikus-entzunezkoak topa-tzen saiatu naiz. Saiatu diot, zoritxarrez, gauzak asko alda-tzen ari diren arren, kosta egin zaidalako ikuspegi femi-nista duten kontakizun errea-listak, zintzoak eta beneta-koak topatzea; ia guztia topikoak eta etengabeko fal-tsukeriak baitira, begirada he-teropatriarkal batetik abiatzen diren kontakizunak.

Iruditzen zait, ikus-entzu-nezkoek geure egunerokoan duten pisua kontuan izanik, feminismoan ere amatasunari eta gurasotasunari oro har merezi duen tokia emateko bi-dea ireki dezaketela. Esan di-tudan azpigai horiek kontuan izanik, jarraian aipatuko ditu-dan proposamenak zehatz-mehatz aztertuko banitu, guz-tiei traba edo alderdi negatibo

Albiste bat: «Katixa Agirreren ‘Amek ez dute’ zinemara eramango dute. Mar Coll zuzendari kataluniarrak moldatuko du liburua pantailara, eta aurten hasiko dira filma-tzen. Eskolakide batek bere bi ume bikiak hil dituela jakiten duen ama eta idazle bat du protagonista». Eta amatasunari loturiko hainbat gai jorratzen dituzten bi liburu: Erika Lagoma Pombar eta Estitxu Fernandez Maritxalarren «M ama* eme* ume*» eta Alaine Agirre Garmendiaren «Karena». Hiru elementu horiek izan dira azken egunotan hausnarketa txiki batera eraman nautenak: amatasuna, haurdunaldia, erditzea edo guraso izatea zineman nola dagoen irudikatua.



txikia aterako niekeen arren, honakoak iruditzen zaizkit in-teresgarrienak:

Cinco Lobitos

HBO Max eta Filmin

Barrenak nahasten dituen film horietakoa osatu du Alau-da Ruiz de Azuak. Pertsonaiak erdigunean jarritz, amatasuna, zaintza eta familiaren komu-nikaziorik ezaz diharduen bi-daia emozional zoragarria eraiki du. Lan zintzo, natural, errealista eta hunkigarria oso.

Laia Costak maisuki gorpuz-ten duen Amaia ama izan be-rri da, eta ez daki nola heldu egoera horri. Baina, aldi be-rean, alaba ere bada. Beraz, amarekin duen harremanak berebiziko indarra du haren-tzat. Ruiz de Azuak kontakizu-na eszenaratzeko aukeratu duen naturaltasunak eta, ba-tez ere, gertukoak senti ditza-kegun pertsonaia horiekin bi-daiatzek lehen unetik pantailara itsastea eragiten dute, ikuslea protagonistaren eta familia horren bidaia-la-gun eginez. Hunkigarria oso.

Els dies que vindran

Netflix eta Filmin

Haurdunaldiaren prozesua denbora errealean bizitzeko aukera ematen duen Katalu-niako proposamen hau errea-lismoaren eta naturaltasuna-ren eremuan urrats bat aurrerago doan filma da, pan-taila zeharkatu eta ikuslearen alderdi emozionalenean eragi-ten duen istorioa baita. Filmak

Lehen orrian «Cinco Lobitos» eta «Els dies que vindran» filmen fotograma bana. Bigarren orrian, goitik behera, «L'événement», «Mira lo que has hecho» eta «Pieces of a Woman» proposamen interesgarriak.

badu berezitasun bat, aktore-bikote protagonista bizitza errealean ere bikotea direla, eta pantailan ikusten dugun haurdunaldi prozesu osoa bene-benetakoa dela. Narratibari, beraz, fikziozko elementuak eta aktore protagonisten benetako bizi esperientziak uztartzen dira. 9 hilabetez, eta haurdunaldi bat tarteko –horrek suposatzen duen guztia- rekin–, bi pertsonaren bizitzan sartuko gara.

L'événement

Filmin eta Movistar

Kontzientziak astintzeko filma duzue honakoa, “abortu” hitza ahoskatzeak berak eskandalu handia sortzen zuen garaia irudikatzen duelako. Frantzia, 1963. urtea. Protagonista nagusia, Anne, etorkizun oparoa duen ikasle gaztea da, haurdun dagoela jakiten duen arte. Goizetik gauera, ikasketak amaitu eta bere inguruak ezartzen dizkion murrizketa eta debeku itogarrietatik ihes egiteko aukera zapuztu egingo da. Filma abortuaren aldeko alegatua izateaz gain, emakumearen askatasunaren aldeko garrasia ere bada.

Gogorra da, deserosoa, inolako begiramenik gabe ikuslearen barrenak mugitzen



dituen horietakoa. Askatasunaren aldeko defentsa oso beharrezkoa. Audrey Diwan-ek kameraren atzean egiten duen lana eredugarria da, eta zeresanik ez Anamaria Vartolomei-k oparitzen digun txapela kentzeko moduko antzez-lana.

Mira lo que has hecho

Movistar

Guraso izateak bizitzan daka- rren erabateko aldaketari aurre egin behar dion bikote baten gaineko erradiografia berritzailea eta nahiko ausarta iruditu zait, ohikoa ez den ikuspegi batetik eraikia. Berto eta Sandraren bizitza kontatzen duen telesail dibertigarria eta une batzuetan baita dramatikoa ere, bi generoen arteko joko ezin orekatuagoan sostengatzen dena.

Lorik gabeko gauak eta argibide libururik gabeko “lana”. Bizitzaren errusiar mendiari fikzioaren bidez erritmoa jarritz, telesailak erakusten duen umore zorrotza eta drama ukituak apartak iruditzen zaizkidan arren, ekoizpenaren bertuterik handiena bizitza bera bezain erreala dela da. Hirugarren eta azken denboraldia maisuki itxi duen opari pozoitua iruditu zait, momenturik onenean agurtzen delako.

Pieces of a Woman

Netflix

Lehen 30 minutuengatik soilik ikustea merezi duen filma. Ia denbora errealean kontatutako erditze eszena bat ardatz duen sekuentzia plano itogarri baten ernamuinetik heltzen dio ikusleari, oinaze sakonek zatikatutako emakume baten jarraipenean geure begirada il-tatzeko. Arazoa, ordea,

gainerako metraje osoan zehar ez duela maila hori mantentzen, behin pertsonaien bizitza betiko markatzen duen ez-behar hori gertatzen denean, pelikula konbentzionalagoa bihurtzen delako eta ez hain zirraragarria.

Hala ere, erritmo erakargarrikerik proposatzen ez duen arren, ausarta iruditu zait normalean tabu izaten diren hausnarketa oso sakonak eta interesgarriak mahai gainean jarri dituztelako, non kasu zehatz baten bidez denok isla gaitezkeen protagonistengan eta ezbeharren aurrean dituzten jarreretan. Denok ikusi beharko genukeen filma dela uste dut. Eztabaidatzeko, hausnartzeko, geure ikuspuntua zein den azaltzeko.

Un heureux événement

Hiru etapa edo zatitan banatzen den filma: haurdunaldia, erditzea eta hazkuntzaren lehen urratsak. Haurdunaldia eta horren inguruko ia guztia umorez jorratu izan da oro har zineman, eta film hau ez da salbuespena, baina hori ez da gailentzen den tonua. Amatasunari buruzko topikoak saihestu nahi dituen filma

baita honakoa. Proposamen ausarta da, eta haurdunaldiaren idealizazio zinematografikotik urrunago doana, ikuspegi errealistagoa emanez.

Amatasun zintzoaren eta taburik gabearen barne ikuspegiaren barruan, bikotearen bizitza eraldatzen duen esperientzia gisa ere azaltzen da. Ginekologoarengana egindako bisitak, ekografiak, bihotzaren taupadak entzutearen emozioa, fetuaren sexua ezagutu nahi izatea (edo ez), lehen

ostikoak, hormona aldaketak, gorputz aldaketak, umore aldaketak, bereziki emakumeak jasotzen dituen etengabeko aholkuen tsunamia (ez erre, ez edan, ez jan gutxi kozinaturiko haragia, ez jan gazta...).

Maid

Netflix

Bizitza berregiten saiatzen den ama gazte baten zailtasunetan zentratzen da, tartean

abusu emozionalek uzten duten orbain sakonak bistaratuz. Lehen atalek istorio berri eta fresko bat aurkezten dute, gogorra eta latza hori bai, Alex protagonistaren bitartez, zeinarekin lehen kapitulutik azkenera arte sekulako enpatia maila lortzen den.

Gidoiak indar handia du, ez baita denborarekin mugitzen, pertsonaiek beraiek sortzen baitute gidoi dinamiko eta erakargarri horren erregaia. Margaret Qualley protagonis-

ta eta Andie MacDowell-en arteko kimika eta bien antzezpen erakustaldia ere sekulakoa iruditu zait.

Petite fille

Filmin

Zazpi urteko Sasha, mutil baten gorputzean harrapaturik dagoen neska da. Sebastian Lifshits zuzendariak era delikatu eta oso arretatsua erabiliz islatu du Sasharen eta haren ingu-

Alboko irudietan «Un heureux événement» filma, «Maid» telesaila eta «Petite fille» dokumentala. Azken orrian, «Nowhere Special», «Rara» eta «La maternal» filmetako fotogramak.



rukoen esperientzia, dokumental eredugarri, hunkigarri eta zoragarri hau eraikitzeko.

Dokumentala amarekin duen elkarrizketarekin hasten da. Hasieran, errua eta mina sentitzen dituen ama baten beldur errepikariak agertzen dira. Izan ere, ordu arte alabak bakarrik sentitu eta bizi behar izan du hori guztia. Ez da zuzenean amatasunaren gaia jorratzen, baina oso interesgarria iruditzen zait azaltzen den istorio horrek zein eragin duen horretan; gurasoak eredugarriak baitira arrazoinamendu eta portaeretan, baita anai-arrebak ere.

Nowhere Special

Amazon eta Apple tv+

Johnek, 34 urteko leiho garbitzaileak, bizitza eman du bere seme Michael hazten, lau urteko mutikoa, bere amak jaio eta berehala abandonatu zuena. Biek bizitza sinplea daramate, pitzadurarik gabeko maitasun harreman batean oinarritua. Zoritxarrez, Johnek hilabete batzuk besterik ez du aurretik, gaixotasun terminal bat diagnostikatu baitiote. Familiarik ez duenez, geratzen zaizkion egunak Michael adoptatuko duen familia berri bat bilatzen inbertitzea erabakitzen du.

Filma modu sotilean idatzia dago, eta ikusleari familiaren egoera deskubritzen uzten dio metrajeak aurrera egin ahala. Gidoiaren meriturik handiena tratamenduan datza, nire ustez: zuzendariak, alde medikoa eta, partzialki, gaixotasunaren hondamenak alde batera uzten baititu, ez du ikuslea malko errazean erortzerik nahi. Pertsona baten, kasu honetan aita baten bizitzako azken asteak dira, eta helburua bakarra da: semeari bizitza berria eta segurua bermatzea.

Modu iraunkorrean dago guztia azaldua, era sotilean, esplikatioegia izan gabe, alde

melodramatiko guztietatik ihes eginez eta hori eskertzekoa da oso, aita horren duintasuna azaleratzen delako. James Norton eta Daniel Lemont-en interpretazioak zoragarriak iruditzen zaizkit.

Rara

Filmin

Lesbiana izateagatik alaben zaintza kendu zioten epaile txiletar baten benetako kasua du oinarri istorio honek eta Sara alaba zaharrenaren ikuspuntutik kontatuta dago. Istorio gogorra eta bidegabea izanik ere, filmaren tonua ez da ia inoiz dramara hurbiltzen. Pepa San Martin zuzendaria ez da melodraman erortzen, ezta estereotipoetan ere, eta, ahal den neurrian, egoera desdramatizatzen du umorezko dosi txikiekin.



Familia baten parte sentitzearen poza ospatzen du filmak; ia guztia neska txikien ikuspegitik kontatua egoteak xalotasun eta samurtasun ukitua ematen dio, eta tokiko istorio hau kontakizun unibertsal bihurtzen du. Zintzoa, zuzena, egiazkoa eta oso gizatiarra da, eta batez ere ausarta. Auzia filmatu beharrean, San Martinek, alaba zaharrenaren ikuspegitik, gogo aldartea islatu nahi izan duelako; inguruko gatazkak ulertzen saiatzen den bitartean, nerabezaroko aldaketei aurre egin behar dien gaztea.

La maternal

Ama nerabeen inguruko film gogorra eta ezezaguna den errealitate bati buruzko istorio hunkigarria. Carlak 14 urte ditu eta amarekin batera bizi da jattetxe zahar batean. Gizarte langilea Carla bost hilabeteko haurdun dagoela konturatzen denean, La Maternal zentroan sartuko du. Ama adingabeentzako zentroa da, eta bere eguneroko bizitza egoera berean dauden beste gazte batzuekin partekatu beharko du.

Carlaren ama ere haurdun geratu zen adingabea zela, eta aitarik gabe hazi da. Bien arteko harremana gatazkatsua da, eta gaitzespen etengabea oinarritzen da: amak uste du alabaren jaiotzak txarrerako aldatu diola bizitza, eta alabak ez duela inoiz amarik izan. Autoaurkikuntzarako izan behar lukeen etapa hori bat-batean eten egiten da seme-alaben beharregatik eta amaren rola egokitzeagatik.

Horren gai konplexua jorratzeko modurik onena zintzotasunetik da eta Pilar Palomeiro zuzendariak bide hori hartu du; kamera kokatu besterik ez du egin eta epairik gabe aktore profesionalak ez diren emakumeen bizipen eta kezkarik handienak partekatzea ahalbidetu du.